



IRIZPEN ZK.: D16-026

UDAL BATEK EGINDAKO KONTSULTA, ZOR BATEN ZENBATEKOARI BURUZ, ZORRA ORDAINDU BEHAR DUENA EZ DEN HIRUGARREN BATI EA ESAN AHAL DION GALDETUZ

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2016ko apirilaren 5ean udal baten kontsulta bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (DBEB). Kontsulta goian adierazitako gaiari buruzkoa zen.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Udalak honako kontsulta egin du: *“herritar batek Gizarte Segurantzaren enkante batean hartu nahi du parte, eta udalaren Ibilgailuen Erroldako ibilgailu batek Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan zenbateko zorra duen jakin nahi du. Herritarrak bakar-bakarrik daki ibilgailuaren matrikula, eta ez daki eta ez du jakin nahi nor den gaur egun ibilgailuaren jabea, bakarrik zorra”.*

Udalak jakin nahi du ea informazio hori eman ahal dion herritarrari.

II

Udalak datu pertsonalak komunikatzeari buruzko kontsulta bat egin du, hau da, interesduna ez den beste bati Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga likidatzean sortutako zorrari buruzkoa.

Udalak datu horiek interesduna ez den hirugarren bati komunikatzea zilegi den ala ez ebatzi aurretik, aztertuko dugu zer dioen ibilgailu baten titulartasun administratiboa aldatzeari buruzko araudiak Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren gainean, eta



ibilgailuen datu eta aurrekari buruzko informazioa jendearen eskura jartzearen gaineko arauak.

Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorrak honakoa xedatzen du 31. artikuluan: *“Ibilgailuaren erregistroko titularra aldatzen denean, zirkulazio baimena edo lizentzia ere aldatu behar da”*.

Erregelamenduaren 32. artikulua arautzen du nola egin behar dituzten eskualdaketa ibilgailuen salerosketan ez dabilen pertsonak, eta honako betebeharrak esleitzen dizkie eskualdaketa egiten duenari eta erosleari:

1.- Eskualdatzaileak eskualdaketa berri ema beharko du eskualdaketa egin zen egunetik hasita 10 eguneko epean, eta Trafikoko Buruzagitzan aurkeztu beharko ditu honako agiri hauek: *“Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga kobratzeko azken ordainagiria ordaindu dela egiaztatzen duen jatorrizko agiria eta agiriaren kopia, eta salbuetsita egonez gero, horri buruzkoa ere bai”*.

2.- Era berean, erosleak 30 eguneko epea du, erosketa egiten duenetik, Trafiko Buruzagitzari eskatzeko zirkulazio baimena edo lizentzia berritzeko. Horretarako, honako agiriak aurkeztu beharko ditu: *“trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu dela egiaztatzen duen jatorrizko agiria eta agiriaren kopia, eta salbuetsita egonez gero, horri buruzkoa ere bai, baldin eta eskualdatzaileak ez badu bete Erregelamendu honetako 32. artikuluko 1. zenbakiak agintzen duen eskualdaketa jakinarazpena”*.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari erreparatuta, zerga arautzen duen ordenantza fiskala bat dator uztailaren 5eko 14/1989 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Arauarekin, eta zergaren subjektu pasiboa nor den dio: ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den pertsona. Zergaldia urtea da. Eta urteko lehenengo egunean sorrarazten da zerga.

Era berean, 14/1989 Foru Arauaren 8.3 artikulua honakoa xedatzen du: *“Trafikoko buruzagitzek ez dituzte izapidetuko ibilgailuen bajak edo eskualdaketa, lehenago ez bada egiaztatzen zerga ordaindu dela”*.

Toki Ogasunak Arautzen dituen Legea onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren Testu Bateginaren 99. artikuluan (Iruzur Fiskala Prebenitzeko Neurri buruzko azaroaren 29ko 36/2006 Legearen hamaikagarren artikulua aldatua) 2. eta 3. zenbakiek zerga ordaindu dutela egiaztatzea erraztu egiten dute, eta honakoa xedatzen dute:

“2. Trafikoko probintzia buruzagitzek ez dute aldatuko ibilgailuaren titulartasun administratiboa, harik eta erregistroko titularrak egiaztatu arte, ordaindu duela eskualdaketa egiten den urtearen aurreko zergaldiko ordainketa egin duela.”

*“3. Eta ordaindu dela egiaztatu ahal izateko, borondatezko epealdia bukatzean, udalek edo diru-bilketa delegazioz egiten duten bestelako erakundeek Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailu Erregistroari jakinarazi beharko diote ez dela zerga ordaindu urte barruko zergaldian. **Ibilgailuen Erregistroan ez badago jasota zorrik dagoenik, horrek esan nahiko du zergaldiko ordainketa eginda dagoela, eta zergaldiko ordainketa egin duela egiaztatzeko balio du bakarrik.**”*

Aipatu dugun 99. artikulua garatzeko, Trafikoko Zuzendaritza Orokorrak (DGT) 2010eko uztailaren 9ko Ebazpena onartu zuen (2010-07-23ko Estatuko Aldizkari Ofiziala-BOE),



Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga zor dela jakinarazteari buruz Ibilgailuen Erregistroari. Horretarako, honakoa xedatzen du lehenengo eta bigarren zenbakietan:

“Lehenengoa. “Titulartasun aldaketak. — 2011z geroztik Trafikoko probintzia buruzagitzek ibilgailuen titulartasun aldaketak egingo dituzte, baldin eta ibilgailuen historialean ez bada bertan jasota ageri eskualdaketa egiten den urtearen aurreko zergaldiko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu gabe dagoela.

Data horrez geroztik, Trafikoko probintzia ordezkariak ez dute ibilgailuen titulartasun aldaketarik egingo, aurreko ekitaldiko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordainduta dagoela jakin arte.

Bigarrena. Ibilgailuen Erregistroko zorrari buruzko oharra kentzea. — Zorrari buruzko oharra kendutakoan ibilgailuen titulartasun aldaketa egin ahal izango da, eta bakar-bakarrak udalek edo diru-bilketa delegazioz egiten duten bestelako erakundeek egin ahal izango dute aldaketa.

Hala ere, tokiko erakundeak berariaz eskatuz gero, trafikoko probintzia buruzagitzek egin ahal izango dituzte haien ibilgailuen titulartasun aldaketak, zorra ordaindu dutela egiaztatzen duen agiria aurkezten bazaie”.

Esandako guztia kontuan hartuta, eta dagokion trafikoko probintzia buruzagitzan titulartasun administratiboaren aldaketa izapidetu ahal izateko, erraztu egin da zerga ordaindu dela egiaztatzeko modua, eta, beraz, ibilgailuaren historialean ez bada ageri zorrik, trafikoko probintzia buruzagitzak titulartasuna aldatu ahal izango du zerga ordainduta dagoela egiaztatzen duen agiririk eskatu gabe. Baina historialean zorra dagoela ageri bada, trafikoko probintzia buruzagitzak ezin izango du titulartasun aldaketarik egin, dagokion udalak zorrari buruzko oharra historialetik kendu arte edo, probintziako buruzagitzak berariaz eskatu duelako, zorra ordaindu dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu arte trafikoko probintzia buruzagitzan.

Ikusita pertsona batek interes legitimoa duela Gizarte Segurantzak bahitutako ibilgailu baten enkante publikoan parte hartzeko, ibilgailu horren aurrekariari buruzko informazioa jasotzeko eta ibilgailua eskuratzeko baldintzak betetzen diren ala ez jakiteko, ekainaren 11ko 1415/2004 Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorren 117.2. artikulua xedatzen du enkatearen iragarkian honakoak agertu beharko direla: *“b) Kargak, zergak, egoera juridikoak eta horien titularrak, kontuan hartuta esleipenaren prezioa ez dela ezarriko horiek azkentzean”.*

Artikulua irakurrita, ematen du enkatearen iragarkian agertu beharko direla, besteak beste, bahitutako ibilgailuaren eskualdaketa administratiboan eragina izan dezaketen egoera juridikoak, adibidez, zenbateko zorra duen Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan; izan ere, zerga ez bada ordaindu, ezin izango delako ibilgailua eskualdatu, eta, beraz, ezin izango delako ibilgailua erosi nahi duenaren aldeko zirkulazio baimen berririk egin.

Era berean, interesdunak ondoko bi erregistro hauetara jo ahal izango du ibilgailuaren aurrekarien berri izateko:

- Ibilgailuen administrazio erregistroa. Hor ikus daiteke zein den ibilgailuaren administrazio egoera. Erregistroa arautzen duen araua Ibilgailuen Erregistro Orokorra da (abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak onartu zuen), eta erregistroaren ardura Trafikoko Burutza Nagusiak du. Erregistroan jaso beharko



dira udalek Trafikoko Buruzagitari jakinarazita eta ordaindu gabe dauden trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga-zorrak, halakorik eginez gero. Trafikoko Zuzendaritza Orokorraren 2010eko uztailaren 9ko Ebazpenaren hirugarren atalak honakoa xedatzen du: *“Zerga zorra izan eta erregistroan oharra duten ibilgailuei buruzko komunikazioak egiteko, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak ezartzen dituen zehaztapen teknikoak hartu beharko dira kontuan, eta zehaztapenen arten egongo dira gutxienez matrikula eta ibilgailuaren titularra”*. Zorrari buruzko oharrak ez du adierazten zorraren zenbatekoa, udalek ez dutelako informazio hori bidaltzen. Oharrean bakarrik agertzen da urte edo ekitaldi batean zor bat dagoela.

- Ondasun Higigarrien Erregistroa. Hor ikus daiteke ea ibilgailuak kargarik duen. Abenduaren 3ko 1828/1999 Errege Dekretuaren bidez sortu zen Erregistroa.

Nahiz eta orain arte adierazitako modu horiek erabili, Gizarte Segurantzak bahitutako ibilgailu baten enkante publikoan parte hartu nahi duen edonork, ez badu lortzen jakitea ibilgailuak zein zor duen zerga ez ordaintzeagatik, horrek esan nahi du interesdunari ukatu egiten zaiola jakitea zein izango den, ibilgailua erosiz gero, ordaindu beharko duen zenbatekoa osoa; izan ere, saltzaileak ez badu zorra ordaintzen, erosleak ordaindu beharko du, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak zirkulazio baimena berritu eta bere izenean ematea nahi badu.

Beraz, informazio gehiagorik ez dugunez, Agentziak uste du aipatu dugun azken egoeran behintzat zilegi dela udalak ibilgailua erosteko asmoa agertzen duen hirugarren bati esatea zenbatekoa den eskualdaketa egiten den urtearen aurreko zergaldiko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren zorra, ordaindu gabe badago (Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren 99. artikulua). Baina, udalak ez du beste daturik emango: nor den ibilgailuaren titularra edo beste datu pertsonalik. Eta hori hala egin beharko da DBLOren 4. artikuluan xedatutako kalitatearen printzipioak hala eskatzen duelako.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 5a